

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### Donemiliagako kontzejuen 2025eko gastu arrunt, obra eta jardueretarako udal dirulaguntzen deialdia jasotzen duen 2026ko maiatzaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 911865.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/911865>).

#### Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da udalerrri honetako kontzejuek 2025an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzen laguntzea, oinarrizko zerbitzu publikoak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz egin badira.

Diruz laguntzekoak izango dira udalerrri honetako kontzejuek 2025an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Beste laguntza edo deialdi batzuen bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak edo jarduera espezifikokoak, diruz lagundu gabeko zatia izan ezik.
- Otorduen, elikagaien eta abarren gastuak.

#### Onuradunak

Donemiliagako udalerrriko kontzejuek.

#### Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2026ko maiatzaren 11an egindako bilkuran onetsiak.

#### Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 177.485,74 euro izango da.

#### Banaketa irizpideak

a) Zenbateko finkoa (12.629,28 euro), zeina 789,33 euroko banaketa linealari baitagokio; udalerrriko hamabost kontzejuen artean banatuko da, kontuan izanik kontzejuek osatzen dituzten herriguneetako biztanleak hornitzeko diren ur andelak eta haien hoditeria.

b) Ur andelen banaketa linealetik geratzen den zenbatekoaren (162.856,46 euro) ehuneko 60 (97.713,88 euro), zati berdinetan banatuko da udalerrriko hamabost kontzejuen artean. Horiek horrela, kontzeju bakoitzak 6.514.25 euro jasoko ditu.

c) Gainerako ehuneko 40a (65.142,71 euro), proportzioan banatuko da, kontzeju bakoitzak 2026ko urtarrilaren 1ean eroldaturik dituen biztanleen arabera.

d) Aurrekontu aplikazioan jasotako 2.000,00 euroko zenbatekoa auzo konpostajeko jardunbide egokietara bideratuko da.

Jarduera hori abian jarri duela eta horretan lanean diharduela egiaztatzen duen kontzeju bakoitzari gehienez ere 500,00 euroko dirulaguntza emango zaio, eta zenbateko hori kontzejuarentzat kalkulaturako dirulaguntza osoari gehituko zaio.

Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta kontzeju bakoitzak jaso beharreko gehieneko zenbatekoa gutxitu behar bada aurrekontu partidan auzo konpostajeko jardunbide egokietarako ezarritako zenbatekora doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie kontzeju eskatzaile guztiei.

**Eskaerak aurkezteko epea**

Herri guztiek eskaerak eta justifikazio dokumentazioa aurkezteko duten epea 2026ko irailaren 12an bukatuko da.

Erdoñana, 2026ko ekainaren 10a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*